

EDITORIAL

ZALETASUN BATEN ALDE ONAK ETA TXARRAK

Maiatzaren 6 eta 7an, Donostian. Lagun aldra bat elkarrekin bizi, hitz egin, filmeak ikusi, txostenak eta komunikapenak entzun eta esperientziak elkarraldatu, hango guztien zaletasun berdina zela eta. Egun bi laburrak eta amaigabeak eginkizun baten inguruan, antolatzaile talde txiki baten lan gogotsuaren fruitu bezala.

Mendi-Medikuntzari buruzko VIgn. ihardunaldi horietan ondorio batzuk agertu zaizkigu berriz: garrantzia duen zerbaiten barruan gaudela, alpinismo egitea mezei duela, iharduera ona dela bai individual bai gizarte mailan.

Eta berriro ere sentitu dugu alpinismoa kirol-moeta bat baino askoz ere gehiago dela eta, ostera ere, konturatu gara, azken finean, bizitza-tankera bat eta gure osasunarekiko konpromezu bat dela; gauza bi hauen mugako kasua Messner-en justifikazioan agertzen da: «...nire ahalmen fisikoaren mugara hurbildu beharra dut eta».

Zaletasunaren alde txarra oso gogorra da eta «Mendi-Medikuntza» izen honek gogora dakarzkigu argi eta garbi izaten ditugun arriskuak, arrisku handiak askotan: istripuak, hotzak, goiera, arazo psikologikoak... urtero-urtero heriotza asko dago Mendi Garaietan: Zortzi mila metrotako Kronikan ia ia beti doluz agertzen zaigu; eta ez bakarrik han, urrutian, Himalayan edo; Alpeetako estadística gogorra da horretan: urtean-urtean 1.000-ren bat heriotza beraietatik batzuk geureak direnak. Eta, batez ere, hementxe bertan ere, geure mendietan sarri suertatzen zaizkigu zori-tzarreko istripuak: batzuk eskalada egitean, beste batzuk mendi errazetan. Horregatik alpinismoari «sufrimenduaren jolasa» deitzen zaio.

Alpinismoa osasunaren babes-ekintza bezala ulertzea da, izan ere, zaletasun horren alde ona. Ideia honi amaiera emateko, honako topiko sugerigarriok aipatuko ditut: aire libreango ariketa fisikoa, izadi eta kutsatu gabeko atmosferarekin ukipena, gogortze fisikoa «goizetik gauera lortzen ez dena», gizarte-harremanak berezko barruti batetan, hunkipenezko oreka eten gabeko heziketa eta norberzagutza-ahalmen bezala... Ideia hauek buruan erabiltzea merezi dute, Mendia gure etorkizunaren gako bat izan daiteke eta.

6 y 7 de mayo en Donosti. Un montón de amigos conviviendo, charlando, viendo películas, debatiendo ponencias y comunicaciones, intercambiando experiencias sobre una pasión común. Dos cortos días interminables alrededor de un montaje, como tantas veces, fruto del trabajo entusiasta de un pequeño grupo de organizadores.

Las VI Jornadas de Medicina de Montaña han conseguido crear el marco de reflexión para que hayamos podido deducir otra vez que estamos metidos en algo importante, que la práctica del alpinismo merece la pena, y que es una actividad individual y socialmente buena.

Hemos vuelto a sentir que el alpinismo es mucho más que una modalidad deportiva. Otra vez nos han hecho percibir que al final implica un estilo de vida, un compromiso con nuestra salud, cuyos casos extremos se expresan en la justificación de Messner «...porque necesito aproximarme al límite de mi capacidad física».

La cruz de la moneda es muy seria y el título de Medicina de Montaña nos evoca en seguida los peligros, en muchas ocasiones graves, que nos acompañan: accidentes, frío, altura, problemas psicológicos... Hay muchos muertos cada año en la Alta Montaña: la Crónica Ochomilista viene casi siempre ribeteada de luto. Y no sólo allá lejos, en el Himalaya. La estadística de los Alpes es machacona: unos 1.000 muertos al año, de los que algunas veces también nos toca a nosotros. Y, sobre todo, aquí mismo, en nuestras montañas nos llega con frecuencia la mala noticia de accidentes fatales, unos practicando la escalada y otros en montañas que podemos considerar sencillas. Se ha definido el alpinismo como el «juego del sufrimiento».

La visión del alpinismo como acción de protección de la salud es la cara positiva de la moneda. Mencionaré para resumir esta idea, una serie de tópicos sugestivos: el ejercicio físico al aire libre, el contacto con la naturaleza y la atmósfera no contaminada, el endurecimiento físico «que no se puede aprender de un día para otro», las relaciones sociales en un encuadre natural, el equilibrio emocional, fruto de la educación permanente y la capacidad de autoconocimiento... Vale la pena pensar en ellos. La montaña puede ser una de las claves de nuestro futuro.

CARA Y CRUZ DE UNA AFICION